

# GUFeko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA

2022-2025




# AURKIBIDEA

|           | <b>Atalak</b>  | <b>Orriald<br/>ea</b> |
|-----------|--|-----------------------|
| <b>01</b> | <b>Sarrera</b>   | <b>3</b>              |
|           | • GUFEn aurkezpen laburra                                | 4                     |
|           | • Organigrama  | 5                     |
|           | • Konpromisoa eta ibilbidea berdintasunean               | 6                     |
|           | • Berdintasunerako III. Planaren arau-esparrua           | 7                     |
|           | • Kontzeptualizazio estrategikoa                         | 8                     |
| <b>02</b> | <b>Berdintasunerako plana</b>                            | <b>9</b>              |
|           | • III. Planaren eremua eta indarraldia                   | 10                    |
|           | • Edukia eta egitura: Ardatzak, helburuak eta ekintzak   | 11                    |
|           | • Ekintzen xehetasuna                                    | 12                    |
| <b>03</b> | <b>Berdintasunerako planaren ezarpena eta jarraipena</b> | <b>32</b>             |
|           | • Berdintasuna kudeatzeko egiturak                       | 33                    |
|           | • Ekintzen plangintza                                    | 34                    |
|           | • Jarraipen- eta ebaluazio-sistema                       | 35                    |


# 01 SARRERA

## GUFeren aurkezpen laburra

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea zuzenbide publikoko erakunde autonomoa da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari (GES) atxikita dago.



# GUFeren organigrama




## Konpromisoa eta ibilbidea berdintasunean

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak (GUFEn 2022-2025) gure **konpromisoa** formalizatzen du **berdintasunarekin**, lan-baldintzetan, barne-funtzionamenduan, gure zerbitzuen eskaintzan eta beste erakunde batzuekiko harremanetan.

Gaur egun, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana ezartzeari ekin diogu GUFEn, bigarren planaren esparruan egindako lanean oinarrituta, **aurrera egiten jarraitzeko, GUFEn osatzen dugun pertsona bakoitzaren jarduera guztietan berdintasunak isla handiagoa izan dezan.**

Plan hau ezarri aurretik, **Berdintasunerako II. Planaren Ebaluazioa egin da GUFEn**. Orain arte gauzatutako ekintzen eraginari buruz hausnartzeko eta gure ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzen nola jarraitu zehazteko esparru gisa balio izan du.

Hausnarketa-prozesu hori **ikuspegi ireki eta parte-hartzaitik** planteatu da, eta erakundearen ekarpenak izan ditu hainbat galdesortaren bidez, bai eta GUFeko berdintasun batzordearen inplikazio garrantzitsua ere.




## Berdintasunerako III. Planaren arau-esparrua

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari atxikitako erakunde autonomo gisa, **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean** jasotako ardatz eta ekintzek gidatu behar dute GUFEn Berdintasun Plana. Plan hori Emakundek egindako plan zuzentzaile gisa taxututa dago, eta EAEko administrazio publikoek, bakoitzak bere esparruan, beren berdintasunerako plan edo programen bidez garatu beharko dituzten antolamendu- eta gizarte-aldaketaren helburuak adierazten ditu. Era berean, **Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana** funtsezko beste erreferentzia-esparru bat izango da GUFEn III. Plana egiteko.

Bi plan horiez gain, GUFEn arau mailan kontuan hartu behar du **4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa**. Horrek ezartzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen betebeharrak, bai eta hari lotutako erakunde guztiak ere: foru-erakunde autonomoak, foru-aldundien enpresa-erakunde publikoak, foru-aldundien merkataritza-sozietateak, foru-fundazioak edo foru-partzuergoak, sexuagatiko berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubide guztiak benetan baliatzeko bermeari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, adierazi behar da **GUFeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2022-2025)**, lehenik eta behin, **berdintasunaren aldeko gobernu ona hobetzeko neurrien** arabera bideratuko dela, eta, bigarrenik, **berdintasunaren arloan esku hartzeko 3 ardatzen** arabera:



Adierazi behar da III. Planean jasotzen diren ekintzen bidez, alde batetik, **orain arte GUFEn implementatutako ekintzak sendotzea nahi dela, eta, bestetik, II. Planaren ebaluazioaren esparruan hobekuntzakotzat jo diren eremuetan sakontzea.**

## Kontzeptualizazio estrategikoa

Jarraian, GUFeko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Planean (2022-2025) jasotako **4 blokeetako bakoitzari buruzko deskribapen** labur bat egin da. Bloke horiek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean zehaztutakoei dagozkie:

|           |  |   |
|-----------|--|---|
| <b>BG</b> | <b>Gobernu ona</b>   | Berdintasuna txertatzea erakundearen barne-prozesu guztietan.   |
| <b>E1</b> | <b>1. ARDATZA<br/>Emakumeen ahalduntzea</b>  | Emakumeen ahalduntzea bultzatzea barne- eta kanpo-mailan, GUFek antolatutako jardueretan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz.  |
| <b>E2</b> | <b>2. ARDATZA<br/>Kontziliazio erantzunkidea bermatzeko<br/>gizarte-antolaketa</b> | Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzea institutuaren antolaketa-kulturan, kontziliazio erantzunkideari buruzko sustapenaren eta sensibilizazioaren bidez.                                    |
| <b>E3</b> | <b>3. ARDATZA<br/>Emakumeen aurkako indarkeriarik<br/>gabeko bizitzak</b>          | Genero-indarkeria mota guztien aurrean prebentzioaren eta jarduteko moduen inguruan sensibilizatzea, eta bizirik dirauten biktimei, GUFeko zerbitzuak erabiltzen dituztenei, kaltea konpontzen laguntzea. |



# 02 BERDINTASUNERAKO PLANA

### III. Planaren eremua eta indarraldia

Berdintasunerako Plana **GUFeko langile guztiei aplikatuko zaie**, bai Plan hau egiten den egunean plantillan daudenei, bai plana indarrean dagoen bitartean etorkizunean sartuko direnei.

Helburua da aniztasuna errespetatu eta estereotipazioa saihestuko duen erakunde bat lortzea, eta plantilla osatzen duten pertsona guztiek baldintza eta aukera berdinekin lan egin ahal izatea, sexuagatiko edo generoagatiko inolako diskriminaziorik gabe.

Era berean, GUFek konpromisoa du ematen dituen zerbitzuen **erabiltzaileekin** eta haien **senideekin**, eta, beraz, pertsona horiek ere dokumentu honetan jasotzen diren ekintzen hartzaile izango dira.

Aurreko planaren indarraldia amaitu ondoren, II. Planaren Ebaluazioa eta Berdintasunerako III. Plana egin dira GUFEn, eta 4 urteko indarraldia izango du, **2022tik 2025era bitartekoa**.

Helburuak lortzera bideratutako ekintzak, plan honetakoak, aldi horretan egingo dira, eta **plan dinamikoa eta aldaketetara irekia** dela ulertuko da, jarraipena eta ebaluazioa egin ondoren sortzen diren premien arabera.

## Edukia eta egitura: Ardatzak, ekintzak eta helburuak

GUFeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (20222025) **4 bloketan eta 16 ekintzatan** banatzen da. Horietako bakoitzak dagokion ardatzarekin lerrokatzen den helburu zehatz bat du lotuta.

|           |  | Ekintzak |
|-----------|--|----------|
| <b>BG</b> | Gobernu ona  | 8        |
| <b>E1</b> | 1. ARDATZA<br>Emakumeen ahalduntzea                                    | 2        |
| <b>E2</b> | 2. ARDATZA<br>Kontziliazio erantzunkidea bermatzeko gizarte-antolaketa | 2        |
| <b>E3</b> | 3. ARDATZA<br>Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak          | 4        |

# GOBERNU ONA

## Garatuko diren ekintzen xehetasuna

Gobernu ona

HELBURUA

Berdintasunerako planari buruzko langile guztien ezagutza bultzatzea

ARDURADUNA(K)

Berdintasun batzordea  
Zentrozen eta etxe-sarearen helbideak

PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

EKINTZA

BG.1

GUFEn berdintasunerako planari buruzko dokumentuak zabaltzea, dauden komunikazio-kanalen bidez.

EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A

Berdintasunerako plan berriari lotutako dokumentuak hedatzea, plana bera eta II. Planaren ebaluazio-txostena barne. Posta elektronikoz bidaliko da, eta GUFEn webgunean eta intranetean argitaratuko da.

Berdintasunerako plan berriaren aurkezpen laburra egitea zentro bakoitzeko lan-bileretako batean edo etxeetan, haren ikusgarritasuna indartzeko. Zuzendaritzak izango dira aurkezpen horren buru, eta beren jardun-eremuarekin zerikusia duten ekintzak azpimarratuko dituzte.

ADIERAZLEAK

II. Planaren ebaluazio-txostena argitaratzea eta bidaltzea: Bai/Ez

III. Plana argitaratzea eta bidaltzea: Bai/Ez

Plana zentroetako lan-bileretan eta etxeetan aurkeztea: Bai/Ez

HELBURUA

Langile guztiei berdintasunaren arloko prestakuntza ematea bultzatzea

ARDURADUNA(K)

Euskara, Trebakuntza eta Berdintasun Arloa

PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

EKINTZA

BG.2

Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntza-ibilbideak diseinatzea eta gauzatzea GUFeko langileentzat

EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A

Edukien arabera hiru multzotan sailkatutako 5 prestakuntza-plan egitea:

1. Adinekoen zentroetako langileak:
  - Adinekoak zaintzeko politikak, genero-ikuspegiarekin
  - Genero-indarkeriaren prebentzioa adineko pertsonengan
2. Adingabeen etxeetako langileak
  - Hezkidetzaren printzipio orokorrak
  - Genero-indarkeriaren prebentzioa adingabeen artean
  - Sare sozialak genero-ikuspegiarekin erabiltzeko gomendioak
3. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen zentroetako langileak
  - Dibertsitate funtzionala, genero-ikuspegiarekin
  - Genero-indarkeriaren prebentzioa dibertsitate funtzionala duten pertsonengan
4. Zentro soziosanitarioetako langileak
  - Arreta soziosanitarioa, genero-ikuspegiarekin
  - Genero-indarkeriaren prebentzioa gizarte- eta osasun-zentro batean
5. Zerbitzu zentraletako langileak
  - Kontziliazio erantzunkideari lotutako zainketa-politika
  - Genero-indarkeriaren prebentzioa

Plana indarrean dagoen bitartean, bloke bakoitzeko gutxienez 2 prestakuntza-saio ematea.

Sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioak zuzendaritza batzordeko langileentzat eta berdintasun batzordeko langileentzat.

ADIERAZLEAK

Diseinatutako prestakuntza-planen kopurua eta horien edukiak

Emandako prestakuntza-saioen kopurua eta horien edukiak

HELBURUA

GUFeko langileei berdintasunaren arloko prestakuntza progresiboa eta iraunkorra ziurtatzea

ARDURADUNA(K)

Euskara, Trebakuntza eta Berdintasun Arloa

PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

EKINTZA

BG.3

Berdintasunari buruzko prestakuntza-ibilbideen betetze-mailaren jarraipena

EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A

5 prestakuntza-planen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea GUFeko arlo guztietarako, berdintasunerako plan hau indarrean dagoen bitartean plan bakoitzerako gutxienez 2 prestakuntza-saio emango direla ziurtatze aldera.

Exceleko tresna batean jasoko da 5 planen edukien proposamena, eta planaren xede den pertsona-talde bakoitzarekin kontrastatuko dira 4 urte horietarako berdintasunaren arloko prestakuntza-lehentasanak.

Prestakuntza-saio bakoitza amaitzean, parte-hartzaileen datuak jasoko dira, sexuaren arabera bereizita, eta prestakuntzaren balorazioa egingo da.

ADIERAZLEAK

Jarraipen-tresna egitea:  
bai/ez

Prestakuntza-lehentasanak  
langileekin alderatzea: bai/ez

Prestakuntzan parte hartu  
duten pertsonen kopurua,  
sexuaren arabera bereizita

Prestakuntzen balorazioa:  
bai/ez

## Gobernu ona

### HELBURUA

Informazioaren, estatistiken eta azterlanen produkzioan genero-ikuspegia sartzen dela ziurtatzea

### ARDURADUNA(K)

Gerentzia  
Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza  
Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza

### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

### EKINTZA

**BG.4**

Estatistiketan, txostenetan, azterlanetan, memorietan, inkestetan eta abarretan genero-ikuspegia sartzea.

### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

Informazioa biltzeko GUFeko prozesu guztiak aztertzen jarraitzea, barnekoak zein kanpokoak, hala, sexuaren arabera bereizitako datu-bilketa bat egiten dela egiaztatzeko, informazio bereizirik ez duten prozesuak hautemanez eta horietan genero-ikuspegia txertatuz.

### ADIERAZLEAK

Genero-ikuspegiarekin egindako informazio-analisien % (estatistikak, azterlanak, txostenak, memoriak, inkestak eta abar)



**HELBURUA**

GUFEn aurrekontuetan genero-ikuspegiaren integrazioa indartzea

**ARDURADUNA(K)**

Ekonomia- eta aurrekontu-arloa

**PLANGINTZA**

2022

2023

2024

2025

**EKINTZA**

**BG.5**

Aurrekontu-plangintzan eta -kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapena

**EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A**

Aurrekontu-prozesu guztiak genero-ikuspegitik aztertzen jarraitzea, Ogasuna eta Finantzen Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuaren jarraibideei jarraituz.

Halaber, aurrekontuen genero-eragina ebaluatzeko fitxak betetzen jarraituko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunari buruzko 4/2018 Foru Arauaren oinarriari jarraituz.

**ADIERAZLEAK**

Genero-eragina ebaluatzeko egindako fitxen kopurua

HELBURUA

Kontratuetan genero-ikuspegiaren integrazioa areagotzea

ARDURADUNA(K)

Kontratazio eta Ondare Arloa

PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

EKINTZA

BG.6

Erakunde laguntzaileekin egindako **kontratu eta hitzarmenetan** berdintasun-irizpideak txertatzen jarraitzea

EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A

2022ko ekainetik aurrera kontratazio-plegu guztietan berdintasunarekin zerikusia duten betebeharez gain, berdintasun-klausulak betetzeko eranskin bat eskatuko da.

Era berean, enpresa esleipendunei informazioa eskatuko zaie sexu-jazarpenerako eta sexuan oinarritutako jazarpenerako egoeretan izandako gorabehereri eta jarraitutako prozedurei buruz.

Azkenik, adingabeen egoitza-kudeaketarako lankidetzeta-hitzarmenei dagokienez, berdintasunerako planaren eskaera-klausularen jarraipena egingo da, baldin eta enpresek edo erakundeek nahitaez izan behar badute.

ADIERAZLEAK

Berdintasun-irizpide berriekin egindako kontratuen eta hitzarmenen kopurua guztizkoarekiko.

HELBURUA

Berdintasunari buruzko kultura areagotzea GUFEn

ARDURADUNA(K)

Berdintasun batzordea

PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

EKINTZA

BG.7

Berdintasunaren arloko albiste, baliabide eta jardueri buruzko mezu elektronikoko bat aldi berean zabaltzea

EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A

Posta elektronikoko bat zabaltzea. Bertan, aurreko 6 hilabeteetan berdintasunaren arloan identifikatutako hainbat baliabide jasoko dira modu didaktikoan eta bisualean, langileentzat, GUFeko erabiltzaileentzat eta haien senideentzat interesgarriak direnak.

Baliabide horiek Emakunderen webgunean jasoko dira batez ere, bai eta GUFeren zentroak dauden udalerrietako udalen eta elkarte feministen webgunean ere, eta mota hauetakoak izan daitezke:

- Berdintasunarekin lotutako jarduerak: hitzaldiak, jardunaldiak, mintegiak, aisialdiko eta kulturako jarduerak
- Berdintasunarekin lotutako albisteak
- Berdintasunarekin lotutako artikuluak, liburuak edo aldizkariak

Horrez gain, Loiu-Udaloste Laguntza Zentroko iragarki-taulan berdintasunarekin lotutako hainbat gai aldizka zabaltzen jarraituko da.

ADIERAZLEAK

Berdintasunerako plana indarrean dagoen bitartean zabalduko mezu elektronikoen kopurua (gutxienez urtean bitan)

HELBURUA

Berdintasunaren aldeko konpromisoa ikusaraztea barne-mailan

ARDURADUNA(K)

Berdintasun batzordea

PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

EKINTZA

BG.8

Berdintasunarekin lotutako film labur bat zabaltzea

EKINTZAREN  
DESKRIBAPEN  
A

Bideo bat egitea eta zabaltzea (film laburra), GUFeko arlo guztiek proiektu komun batean parte hartzen dutela ikusarazteko, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean (2019an hasi zen bidearen jarraipena; beste bideo bat egingo da, non GUFeko erabiltzaileek eta langileek berdintasunaren aldeko esaldi bat esango duten).

Film laburrak hainbat gai jorratuko ditu; sarrera egitura eta hainbat kapitulu eta ondorio izango ditu. Era berean, ohiko grabazioak izango ditu, mezuak dituzten sekuentziak, eta abar. Hori guztia erabiltzaileen eta langileen parte-hartzearekin uztartuko da.

ADIERAZLEAK

Film laburra egitea

Film laburra zabaltzea

# 1. ARDATZA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

## 1. ARDATZA Emakumeen ahalduntzea

### HELBURUA

Genero-kontzientzia sustatzea eta emakumeen autonomiaren garapena sustatzea

### ARDURADUNA(K)

Zentrozen eta etxe-sarearen helbideak

### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

### EKINTZA

E1.1

Erabiltzaileak eta familiak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea, rol eta estereotipo tradizionalak identifikatuz eta deseraikiz

### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

Erabiltzaileen eta haien familien artean balio-aldaketaren eta emakumeen ahalduntzearen garrantzia sustatzera eta sentsibilizatzerako bideratutako jarduerak espezifikoak diseinatzea eta egitea. Ekintza horiek hainbat jardueraren bidez antolatuko dira, hala nola antzerkiak, zineforumak eta abar. Parte-hartzaileei gogoeta egitera gonbidatzen dieten jarduerak izango dira.

### ADIERAZLEAK

Gauzatutako sentsibilizazio-jardueren kopurua

## 1. ARDATZA Emakumeen ahalduntzea

### HELBURUA

Ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzen duten prozesuak sortzea eta sendotzea

### ARDURADUNA(K)

Zentroen eta etxe-sarearen helbideak

### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

### EKINTZA

#### E1.2

Genero-ikuspegia txertatzea GUFeko zentro eta etxeetan egiten diren eguneroko jardueretan

### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

I. Berdintasunerako Planaren indarraldian Leioako zentroan hasitako lana GUFeko zentro guztietara zabaltzea.

Balioen aldaketa sustatzea, sexuaren arabera tradizioz eman izan diren rol eta estereotipoez jabetuz, ingurunean inkontzienteki jarraitzen baitute. Sustapen hori zentro eta etxe bakoitzean egiten diren jardueren bidez gauzatuko da (jaiak eta urtebetetzeak, txangoak, kanpalekuak eta abar). Genero-ikuspegiarekin diseinatuta eta aztertuta egongo dira, eta horrek zuzeneko eragina izango du erabiltzaileengan.

Jarraipen-fitxa bat egitea aurreikusten da, eta hori zentro eta etxeetan egiten den jarduera bakoitzerako erabiliko da. Fitxa bakoitzeko informazioarekin zehaztuko da genero-ikuspegia jardueretan txertatuta dagoen.

### ADIERAZLEAK

Genero-ikuspegia txertatuta duten jardueren kopurua

## 2. ARDATZA

### KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA BERMATZEKO GIZARTE- ANTOLAKETA



## 2. ARDATZA Kontziliazio erantzunkidea bermatzeko gizarte-antolaketa

### HELBURUA

Erantzunkidetasunaren garrantziaz sentsibilizatzea eta informatzea

### ARDURADUNA(K)

Berdintasun batzordea

### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

### EKINTZA

E2.1

Langileak sentsibilizatzea eta informazioa ematea erantzunkidetasunaren garrantziari buruz

### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

Sentsibilizatzea eta langileen artean erantzunkidetasunaren garrantzia sustatzera bideratutako komunikazio-jarduera espezifikoak diseinatzea eta egitea. Ekintza horiek informazio-pilulen bidez antolatuko dira, honako alderdi hauei buruz: mendeko pertsonak zaintzeko betebeharren berdintasuna, familia-erantzukizunen arloko sentsibilizazioa, zereginen banaketa edo maskulinitate berriak.

### ADIERAZLEAK

Sortutako eta zabaldutako informazio-pilulen kopurua

## 2. ARDATZA Kontziliazio erantzunkidea bermatzeko gizarte-antolaketa

### HELBURUA

Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurrien erabilera ezagutzea

### ARDURADUNA(K)

Kudeaketa administratiboaren arloa  
Berdintasun batzordea

### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

### EKINTZA

E2.2

Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurrien erabilerari buruzko azterlana egitea

### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

Azterlana egitea, GUFeko langileek eskura dituzten bateratze-neurrietariko bakoitza nola erabiltzen duten jakiteko, sexuka banatuta. Interesekoak diren beste parametro mota batzuk ere baloratuko dira, hala nola lantokia edo lanpostua.

Azterketa horren bitartez jakin ahal izango da zenbateraino erabiltzen diren horrelako neurriak, eta hurrengo urteetarako balizko hobekuntza-jarduketak antolatu ahal izango dira.

### ADIERAZLEAK

Egin da azterlana: bai/ez

# 3. ARDATZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

### 3. ARDATZA Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

#### HELBURUA

Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokabide desagokiak prebenitzeko protokolei buruzko sentsibilizazioa eta informazioa ematea

#### ARDURADUNA(K)

Laneko arriskuen prebentzioko arloa

#### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

#### EKINTZA

#### E3.1

Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokabide desagokiak prebenitzeko protokoloak zabaltzea

#### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

Langile guztiei honako dokumentu hauek helaraztea:

- Jarduteko protokoloa lanean egoera gatazkatsuak edo jazarpen moralekoak sumatzean
- Protokoloa, GUFEn lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko dena
- Balizko jokabide desagokiaren aurrean jarduteko prozedura

#### ADIERAZLEAK

Protokoloak bidaltzea: bai/ez

### 3. ARDATZA Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

#### HELBURUA

Genero-indarkeria prebenitzeari eta horri aurre egiteari buruzko ezagutza areagotzea

#### ARDURADUNA(K)

Berdintasun batzordea

#### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

#### EKINTZA

E3.2

GUFeko langileak eta erabiltzaileak sensibilizatzea genero-indarkeriaren prebentzioaren eta jardunaren arloan

#### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

Genero-indarkeriari buruzko sensibilizazioa, bereziki Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, azaroaren 25ean, Emakunderen urteko kanpainen zabalkundearen bidez.

Era berean, GUFeko zentro guztietan kartelak jarriko dira genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko zenbakiarekin, eta [Bizkaian genero-indarkeriaren biktima guztientzat eskuragarri dauden baliabideak](#) zabalduko dira.



**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES**

**DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU  
LLAMA, TE AYUDAREMOS**

**24 h**

**INFORMAZIOA ETA BESTE EDOZEIN LAGUNTZA  
PARA INFORMACIÓN Y CUALQUIER OTRO TIPO DE AYUDA**

**900 840 111**

**LARRIALDI BAT BADA  
SI ES UNA EMERGENCIA**  
**((112))  
SOS  
DEIAK**

**ELIZKO JAURLANITZA** **GOBIERNO VASCO**

#### ADIERAZLEAK

- Genero-indarkeriaren inguruan sensibilizatzeari buruz bidalitako jakinarazpenen kopurua
- Kartelak jartzea: bai/ez eta argazki-frogak

### 3. ARDATZA Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

#### HELBURUA

Genero-indarkeriaren arloko koordinazio-egiturak eta -espazioak areagotzea eta hobetzea

#### ARDURADUNA(K)

Berdintasun batzordea

#### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

#### EKINTZA

E3.3

GUFEn emakume erabiltzaileek jasan dezaketen genero-indarkeria prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko gida diseinatzea

#### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

GUFerako gida espezifiko bat egitea, indarrean dagoen araudiaren arabera genero-indarkeriaren biktimen eskubide espezifikoak jasoko dituen, bai eta zentroetan horrelako kasuak gertatzen direnean GUFeko langileentzat jarraitu beharreko prozedurak ere.

Horretarako, GUFek [Gobernu Ordezkaritzaren Genero Indarkeriaren aurkako Gida](#) erabiliko du eredutzat.



#### ADIERAZLEAK

Gida egitea: bai/ez

Gidaren hedatzea: bai/ez

### 3. ARDATZA Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

#### HELBURUA

Genero-indarkeriaren prebentzioaren inguruan sentsibilizatzea adingabeen etxeetako erabiltzaileak, bai eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen zentroetakoak

#### ARDURADUNA(K)

Euskara, Trebakuntza eta berdintasun Arloa

#### PLANGINTZA

2022

2023

2024

2025

#### EKINTZA

E3.4

Genero-indarkeriaren prebentzioari buruz sentsibilizatzeko prestakuntza-ekintzak egitea

#### EKINTZAREN DESKRIBAPEN A

GUFek antolatutako derrigorrezko tailer bat egitea gutxienez, adingabeen etxeetako erabiltzaileentzat, bai eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen zentroetakoentzat.

Tailer horren helburua genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko sentsibilizazioa izango da, eta honako gai hauek jorratuko ditu:

- Genero-indarkeria moten definizioak eta tipologiak
- Genero-indarkeria moten kasu zehatzen adibideak
- Genero-indarkeriako egoeretan jarraitu beharreko prozedurak

Halaber, aldian behin adieraziko diren kanpoko baliabideak baliatuko dira bi kolektibo horietara bidaltzeko.

#### ADIERAZLEAK

Egindako tailerren eta parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera bereizita

Identifikatutako kanpoko baliabideak eta GUFeren erabiltzaileei bidalitakoak

03

BERDINTASUNERAKO  
PLANAREN  
EZARPENA ETA  
JARRAIPENA



## GUFeko berdintasuna kudeatzeko egiturak

| Arloa                          | Egiturak  | Kideak  | Egiteko nagusiak  |
|--------------------------------|---|---|---|
| Barrukoa                       | Berdintasun batzordea   | <ul style="list-style-type: none"> <li>M<sup>a</sup> Jose Larrinaga Artetxe (koordinatzailea)</li> <li>Arantza Maquedano Hernández</li> <li>Isabel Martínez Gazo</li> <li>Luis Ángel Álvarez Flores</li> <li>M<sup>o</sup> José Atutxa Bengoa</li> <li>Adinekoen zentroetako langileen eta langile soziosanitarioen ordezkaria</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planaren ezarpena koordinatzea.</li> <li>Planaren indarraldiaren jarraipena eta ebaluazioa garatzea.</li> <li>Zuzendaritzari proposamenak helaraztea, berdintasunaren arloan barruan eta kanpoan egin beharreko jardueri buruz.</li> </ul>   |
| Erakundeen arteko koordinazioa | Gizarte Ekintza Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zerbitzu Orokorren Zerbitzuko burua</li> <li>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko teknikariak</li> <li>Saileko zerbitzuburuak</li> <li>Sailari atxikitako foru erakundeen ordezkariak</li> </ul>  | Saileko zuzendaritzekin eta zerbitzu eta unitateekin bultzatzea, koordinatzea eta lankidetzan aritzea, ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana programatu, gauzatu, jarraitu eta ebaluatzeko, bai eta sail-mailako beste araudi edo berdintasun-programa batzuk ere.   |
|                                | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa                                      | <p>BFAko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>zuzendaria</li> <li>idazkari teknikoa</li> <li>zuzendaritzako idazkaria</li> <li>administrazioko bi pertsona</li> <li>Berdintasuneko 6 teknikari</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Aldundiko sailei eta haiei atxikitako foru erakunde eta organoei laguntza eta aholkuak ematea (zalantzak argitzea, prestakuntzarako kontaktuak eskatzea, genero-ikuspegidun aurrekontuen fitxak betetzea, eta abar).</li> <li>Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lurralde sarearen koordinazioa</li> <li>Lurralde sarea koordinatzeaz gainera, Bizkaiko Emakumeen Kontseilua suspertu eta bultzatuko du.</li> </ul> |

## Ekintzen plangintza

Planean jasotako **16 ekintzak** garatzeko **denbora-eremua** honela banatuko da:

| ARDATZAK  | EKINTZAK   | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|--|------|------|------|------|
| Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Gobernantza           | BG.1 GUFEn berdintasunerako planari buruzko dokumentuak zabaltzea, dauden komunikazio-kanalen bidez.   |      |      |      |      |
|   | BG.2 Berdintasunari buruzko berariazko prestakuntza-ibilbideak diseinatzea eta gauzatzea GUFeko langileentzat                                |      |      |      |      |
|   | BG.3 Berdintasunari buruzko prestakuntza-ibilbideen betetze-mailaren jarraipena  |      |      |      |      |
|   | BG.4 Estatistiketan, txostenetan, azterlanetan, memorietan, inkestetan eta abarretan genero-ikuspegia sartzea                                |      |      |      |      |
|   | BG.5 Aurrekontu-plangintzan eta -kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapena   |      |      |      |      |
|   | BG.6 Erakunde laguntzaileekin egindako kontratu eta hitzarmenetan berdintasun-irizpideak txertatzen jarraitzea                               |      |      |      |      |
|   | BG.7 Berdintasunaren arloko albiste, baliabide eta jardueri buruzko mezu elektronikoko bat aldian behin zabaltzea                            |      |      |      |      |
|   | BG.8 Berdintasunarekin lotutako film labur bat zabaltzea   |      |      |      |      |
| 1. ARDATZA Emakumeen ahalduntzea                                    | E1.1 Erabiltzaileak eta familiak genero-berdintasunari buruz sensibilizatzea, rol eta estereotipo tradizionalak identifikatuz eta deseraikiz |      |      |      |      |
|   | E1.2 Genero-ikuspegia txertatzea GUFeko zentro eta etxeetan egiten diren eguneroko jardueretan   |      |      |      |      |
| 2. ARDATZA Kontziliazio erantzunkidea bermatzeko gizarte-antolaketa | E2.1 Langileak sensibilizatzea eta informazioa ematea erantzunkidetasunaren garrantziari buruz   |      |      |      |      |
|   | E2.2 Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurrien erabilerari buruzko azterlana egitea  |      |      |      |      |
| 3. ARDATZA Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak          | E3.1 Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokabide desagokiak prebenitzeko protokoloak zabaltzea                               |      |      |      |      |
|   | E3.2 GUFeko langileak eta erabiltzaileak sensibilizatzea genero-indarkeriaren prebentzioaren eta jardunaren arloan                           |      |      |      |      |
|   | E3.3 GUFEn emakume erabiltzaileek jasan dezaketen genero-indarkeria prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko gida diseinatzea               |      |      |      |      |
|   | E3.4 Genero-indarkeriaren prebentzioari buruz sensibilizatzeako prestakuntza-ekintzak egitea   |      |      |      |      |

## Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

Planaren benetako hedapena eta helburuak betetzen direla bermatzeko, gobernantza-eredu hau ezarri da:

| Arloa                               | Zehaztapenak   |
|-------------------------------------|--|
| <b>Jarraipena: sei hilean behin</b> | Sei hilean behin bilerak Berdintasun Batzordean → Planaren burutzapenaren graduaren inguruko hausnarketa eta bertan ezarritako ekintzen aurrerapena.   |
| <b>Jarraipena: urtean behin</b>     | Urtean egindako Planeko ekintzen jarraipenari buruzko txostenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2022: ekintzen burutzapenaren gradua 2022-12-31n. 2023ko lehen hiruhilekoan posta elektronikoz zabalduko da eta GUFEn intranetean argitaratuko da.</li> <li>• 2023 → Ekintzen burutzapenaren gradua 2023-12-31n (metatuta: 1. urtea + 2. urtea). 2024ko lehen hiruhilekoan posta elektronikoz zabalduko da eta GUFEn intranetean argitaratuko da.</li> <li>• 2024 → Ekintzen burutzapenaren gradua 2024-12-31n (3 urteak metatuta). 2025eko lehen hiruhilekoan posta elektronikoz zabalduko da eta GUFEn intranetean argitaratuko da.</li> </ul> |
| <b>Jarraipena: urtean behin</b>     | Planaren indarraldiko urte bakoitzean plangintza bat egingo da; bertan ekingo zaien helburuak eta ekintzak zehaztuko dira.<br><br>Berdintasun Batzordeak ekintzen urteko jarraipenaren ondorioak bildutakoan urteko plangintza egingo du. Urteko plangintzan urtean zehar egingo diren ekintzak zehaztuko dira, honako datu hauek xehatuta: bakoitzaren aurrekontua, arduradunak eta beharko diren baliabideak.  |
| <b>Ebaluazioa</b>                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Planaren indarraldia amaitutakoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren azken ebaluazioa egingo da, eta horren bidez hurrengo plana prestatzeko oinarriak ezarriko dira.</li> <li>▪ Jarraipena bezala, ebaluazioa ere koantitatiboa eta koalitatiboa izango da.</li> </ul>   |



Planaren ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa errazte aldera, jarraipen-tresna bat egingo da (aldeztatik, Excel formatuan), eta bertan jasoko dira egingo diren ekintzak, jarduerak, adierazleak eta abar.

Tresna hori eguneratuz gero, aurrerapenak neurtuko dira, prozesuan egin beharreko hobekuntzak identifikatu eta hainbat eragile egiten ari diren guztia sistematizatuko da, balorazioa egite aldera.



*gufe-ifas*